



HONDARRIBIKO UDALA

Esptea.: 2020PLEN0002

Esptea.: MLI / AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIK
2020KO MARTXOAREN 12AN EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hogeiko martxoaren hamabian Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udaltzatza bildu da Txomin Sagarzazu Ancisar Jaun **Alkate-Udalburuaren** Lehendakariitzepean eta ondoren aipatzen diren **Udalkideak** partaide direla:

Alkateordeak:

Juan María Altuna Muñoa jna.
María Serrano Olascoaga and.
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Gotzone Larrarte Campandegui and.
Gonzalo Carrión Insausti jna.

eta Zinegotziak:

Eduarne Etxeburu Eguia and.
Arantzazu Rojo Gómez and.
Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Estitxu Urtizberea Sorzabal and.
Aitzol Arroyo Tumas jna.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Maria Noemi Odriozola Pascual and.
Xabier Isasi Balanzategui jna.
Xabier Bengoetxea Erriondo jna.

Ezinetorria adierazi dute Silvia Emazabel Felce eta Igor Enparan Araneta jaun-andreek.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa burutu dute hemezortziak eta bostean ni, Maria Luisa Izquierdo Marculeta Andrea, Udaleko Idazkaria lagun nautelarik.

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA POR EL EXCMO.
AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE
HONDARRIBIA EL DIA 12 DE MARZO DE
2020**

En la Ciudad de Hondarribia a doce de marzo de dos mil veinte se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **Alcalde-Presidente** D. Txomin Sagarzazu Ancisar y con la asistencia de los/as **Tenientes de Alcalde Sres./as.:**

D. Juan María Altuna Muñoa
D^a María Serrano Olascoaga
D. Juan Luis Silanes Aguirre
D^a Gotzone Larrarte Campandegui
D. Gonzalo Carrión Insausti

y de los Concejales y Las Concejales Sres./as.:

D^a Eduarne Etxeburu Eguia
D^a Arantzazu Rojo Gómez
D^a Guadalupe Queiruga Oronoz
D^a Estitxu Urtizberea Sorzabal
D. Aitzol Arroyo Tumas
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.
D^a Maria Noemi Odriozola Pascual
D. Xabier Isasi Balanzategui
D. Xabier Bengoetxea Erriondo

Ha justificado su ausencia: D^a Silvia Emazabel Felce y D. Igor Enparan Araneta

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las dieciocho horas y cinco minutos, asistidos/as de mí, la Secretaria, D^{ña}. María Luisa Izquierdo Marculeta.



Aztertu beharreko gaiak aztertzen hasi aurretik, Alkate jaunak bertaratutakoei jakinarazi die Igor jauna eta Emazabel andrea ez direla bilkuran izango, eta Enparan jaunari lehenbailehen senda dadin eta Emazabel andreari laster izango duen erronkarako indarrak bidali dizkie.

Alkate jaunak ditxosozko COVID 19-Koronabirus gaitza dela eta, zenbait neurri hartu direla gogorarazi du eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren gomendioei jarraituz, gaurko bilkuran kazetariei aretotik kanpo egoteko eskatu zaiela azaldu du.

Atzo arte Udalbatzako gai zerrenda hamalau puntuk osatzen zutela adierazi du, baina atzoko Bozeramaile Batzordearen ondorioz, 10. gaia erretiratu dutela esan du. Horrekin batera, Udalbatza honetarako herenegun gauean Abotsanitzek eta EH Bildu taldeek mozio proposamena egin zutela gogorarazi du eta mozio horrek beteko duela 13. puntua.

Bilkura hasirik, ondoko Zerrendan agertzen diren Gaiak aztertu dira:

IDAZKARITZA

1.-2019KO URRIAREN 30EKO BILKURAKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Udalbatzak 2019ko urriaren 30ean egindako bilkurako akta irakurri ondoren, aho batez onartu dute bertaratutako zinegotzi guztiek.

ALKATETZA

2.-ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEARI ETA MERKATARITZA OPERAZIOETAN DAGOEN BERANKORTASUNARI BURUZKO 2019KO 4. HIRUHILEKOAREN HIRUHILEKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.

2019. ekitaldiko 4. hiruhilabetekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epeari eta merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari buruzko hiruhilekoaren informazioari buruzko espedientea aztertu ondoren.

Antes de dar inicio al examen de los asuntos a tratar, El Sr Alcalde ha comunicado a los asistentes la ausencia del Sr Igor y la Sra Emazabel, deseando al Sr Enparan una pronta recuperación y enviando mucha fuerza a la Sra Emazabel para el reto que le espera próximamente.

Recuerda el Sr. Alcalde que se han tomado una serie de medidas con motivo de la enfermedad del Coronavirus (COVID 19) y que siguiendo las recomendaciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco, en la presente sesión se ha pedido a los periodistas que permanezcan fuera de la sala.

Señala que hasta el día de ayer el orden del día del Pleno de la Corporación Municipal estaba compuesto por catorce puntos, pero que a consecuencia de la Junta de Portavoces de ayer, se ha retirado el punto 10. Recuerda asimismo que anteayer por la noche los grupos Abotsanitz y EH Bildu presentaron una moción para este Pleno, que está recogida en el punto 13.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día:

SECRETARIA

1.-LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE 30 DE OCTUBRE DE 2019.

Dada lectura del acta de la sesión plenaria celebrada el día 30 de octubre de 2019, es aprobada por unanimidad de los concejales asistentes.

ALCALDÍA

2.-DAR CUENTA DE LA INFORMACIÓN TRIMESTRAL RELATIVA AL 4º TRIMESTRE DE 2019 CORRESPONDIENTE AL PERIODO MEDIO DE PAGO Y A LA MOROSIDAD EN LAS OPERACIONES COMERCIALES

Examinado el expediente relativo a la información trimestral relativa al periodo medio de pago y a la morosidad en las operaciones comerciales del 4º trimestre del ejercicio 2019.



2020ko urtarrilaren 27ko Udal Kontu-hartzaile andrearen txostenaren berri eman da, 2019. ekitaldiko 4. hiruhilabetekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epeari eta merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari buruzko hiruhilekoaren informazioari buruzkoaz.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.-AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO 2019KO 4. HIRUHILEKOAREN HIRUHILEKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA

Aurrekontuaren exekuzioari buruzko 2019ko 4. hiruhilekoaren hiruhileko informazioaren espedientea aztertu ondoren.

Udal Kontu-hartzaile andrearen 2020ko urtarrilaren 27ko txostena ikusi ondoren.

Arroyo jaunak hartu du hitza eta sarrerak murriztuagoak direla esan du eta gastuak puztuagoak. Aurrekontu Udalbatzan ere gauza bera aipatu izan dutela gogorarazi du eta oraingoan ere argi geratzen dela nabarmendu du. Helburuak betetzen diren ez dakiela adierazi du Arroyo jaunak eta egoera ulergaitza egiten zaiela.

Aurrekontuaren exekuzioari buruzko 2019ko 4. hiruhilekoaren hiruhileko informazioaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

UDALERRIA BATZORDEA

4.-KATU-KOLONIEN KONTROLARI BURUZKO DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN TITULARITATE ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Katu-kolonien kontrolari buruzko dirulaguntza izendunaren titularitate aldaketa onartzeko proposamenari dagokion espedientea ikusi ondoren.

2020ko otsailaren 13ko Udalerria Batzordearen diktamena ikusi ondoren, Udalbatzari dirulaguntza titularitatearen aldaketa proposatuz.

Se da cuenta del informe de 27 de enero de 2020 de la Sra. Interventora Municipal en relación a la información trimestral relativa al periodo medio de pago y a la morosidad en las operaciones comerciales del 4º trimestre del ejercicio 2019.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

3.- DAR CUENTA DE LA INFORMACIÓN TRIMESTRAL RELATIVA AL 4ER TRIMESTRE DE 2019 CORRESPONDIENTE A LA EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO

Examinado el expediente relativo a la información trimestral relativa al 4º trimestre de 2019 correspondiente a la ejecución del presupuesto.

Visto el informe de 27 de enero de 2020 de la Sra Interventora Municipal.

Toma la palabra el Sr. Arroyo señalando que los ingresos son más reducidos y los gastos más inflados. Recuerda que en el Pleno de Presupuestos también mencionaron lo mismo, subrayando que en esta ocasión queda claro. El Sr. Arroyo dice que no sabe si se cumplen los objetivos y que la situación les resulta incomprensible.

Se da cuenta de la información trimestral relativa al 4º trimestre de 2019 correspondiente a la ejecución del presupuesto.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

COMISIÓN MUNICIPIO

4.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE CAMBIO DE TITULARIDAD DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA EN RELACIÓN A CONTROL DE COLONIAS DE GATOS

Visto el expediente relativo a la propuesta de aprobación de cambio de titularidad de subvención nominativa en relación a control de colonias de gatos

Visto el dictamen de la Comisión Municipio de 13 de febrero de 2020, proponiendo al Ayuntamiento Pleno el cambio de titularidad de la subvención.



Serrano andreak hartu du hitza eta gaia azaldu du.

Proposamena bozkatuta, emaitza aldeko hamabost botokoa izan da eta aurkakorik gabekoa.

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, aho batez, hauxe **ERABAKI DU**: Katu-kolonien kontrolari buruzko dirulaguntza izendunaren titularitate aldaketa onartzea.

HERRITARRAK BATZORDEA

5.-CARITSASEN DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN TITULARITATE ALDAKETA ETA BITAN BANATZEKO ONARPEN PROPOSAMENA.

Caritasen dirulaguntza izendunaren titularitate aldaketa eta bitan banatzeko onarpen proposamenari dagokion espedienteak ikusi ondoren.

Gizarte Langile jaunaren 2020ko otsailaren 11ko 87/2020 zkiko txostena ikusi ondoren.

Herritarrak Batzordearen 2020ko otsailaren 13ko diktamena ikusi ondoren, Udalbatzari gehiengoz proposatuz dirulaguntzaren titularitatea aldatzea eta dagokion aurrekontu aldaketa izapidetzea.

Larrarte andreak hartu du txanda eta ondoko testua irakurri du:

“Otsailaren 13ko Herritarrak Batzordean tratatu genuen gaia da, aipatu genuen bezala arazoak sortu dira ze dirulaguntzaren eskaera Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren parrokiak egiten du, eta honi eman eta ordaindutako kopuruaren erdia San Miguel de Garikoitz parrokiari ematen dio. Hau da, alde batetik, Hondarribiko Caritas ez da juridikoki existitzen eta bestalde, dirulaguntza bi entitate ezberdinek jasotzen dute.

Dirulaguntzaren justifikazioari begira ere, honek guztiak arazoak sortzen ditu. Orain arte 16.000€ ematen zitzaizkion Caritasi; errealitateari egokitzearren, dirulaguntza bitan banatu eta aipaturiko bi parrokiei zuzentzea planteatzen dugu, banaketa horrela eginez:

Toma la palabra la Sra Serrano y expone el asunto.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de quince votos a favor y ninguno en contra.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad, **ACUERDA**: aprobar el cambio de titularidad de subvención nominativa en relación a control de colonias de gatos.

COMISIÓN CIUDADANOS

5.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE CAMBIO DE TITULARIDAD DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA A CARITAS Y FRACCIONAMIENTO DE LA MISMA.

Visto el expediente relativo a la propuesta de aprobación de cambio de titularidad de subvención nominativa a Caritas y fraccionamiento de la misma.

Visto el informe del Sr Trabajador Social nº 87/2020 de 11 de febrero de 2020.

Visto el dictamen de la Comisión Ciudadanos de 13 de febrero de 2020, proponiendo al Ayuntamiento Pleno por mayoría cambiar la titularidad de la subvención y tramitar la correspondiente modificación presupuestaria.

Toma el turno la Sra Larrarte y procede a leer el siguiente texto:

Es un tema que tratamos en la Comisión Ciudadanos del 13 de febrero. Tal y como comentamos han surgido problemas porque la solicitud de la subvención la realiza la parroquia de Nuestra Señora de la Asunción y del Manzano, y la mitad de la cantidad abonada a la misma se entrega a la parroquia de San Miguel de Garikoitz. Es decir, por un lado, Cáritas de Hondarribia no existe jurídicamente, y por otro lado, la subvención la reciben dos entidades diferentes.

Todo ello origina problemas también en cuanto a la justificación de la subvención. Hasta la fecha se concedían 16.000 € a Cáritas; para adaptarnos a la realidad, planteamos dividir la subvención en dos y destinarla a las dos parroquias mencionadas, con el siguiente reparto:



*-Jasokunde eta Sagarrondo Ama Birjinaren parrokiari 14.000€ ematea
-San Miguel de Garikoitz parrokiari 2.000€ ematea”.*

Proposamena bozkatuta, emaitza aldeko hamahiru botokoa izan da, aurkakorik gabekoa eta bi abstentziokoa.

Alde bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Gonzalo Carrión Insausti, Edurne Etxeburu Eguia, Arantzazu Rojo Gómez, Guadalupe Queiruga Oronoz, Estitxu Urtizberea Sorzabal, Aitzol Arroyo Tumas, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui eta Maria Noemi Odriozola Pascual jaun-andreek.

Abstenitu egin dira: Xabier Isasi Balanzategui eta Xabier Bengoetxea Erriondo jaunak.

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU**: Caritasen dirulaguntza izendunaren titularitate aldaketa eta bitan banatzea onartzea.

6.-BERDINTASUN PLANA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Berdintasun Plana onartzeko proposamenari dagokion espediente ikusi ondoren.

Herritarrak Batzordearen 2020ko otsailaren 20ko diktamena ikusi ondoren, Udalbatzari gehiengoz proposatuz Hondarribiko emakume eta gizonen Berdintasunerako I Plana onartzea.

Larrarte andreak hartu du hitza eta ondorengo testua irakurtzeari ekin dio:

“Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lehen planaren helburua hobekuntza bilatzea da, gizarte osoaren mesedetan.

Emakumeei zein gizonei dagokien eta eragiten dien zeregina da, eta beraz, ez da mugatzen emakumeei lotutako arazoetara.

*- Concesión de 14.000 € a la parroquia de Nuestra Señora de la Asunción y del Manzano.
- Concesión de 2.000 € a la parroquia de San Miguel de Garikoitz”.*

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de trece votos a favor, ninguno en contra y dos abstenciones.

Votan a favor: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, D^a María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, D^a Gotzone Larrarte Campandegui, D. Gonzalo Carrión Insausti, D^a Edurne Etxeburu Eguia, D^a Arantzazu Rojo Gómez, D^a Guadalupe Queiruga Oronoz, D^a Estitxu Urtizberea Sorzabal, D. Aitzol Arroyo Tumas, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D^a Maria Noemi Odriozola Pascual.

Se han abstenido: D. Xabier Isasi Balanzategui y D. Xabier Bengoetxea Erriondo.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA**: aprobar el cambio de titularidad de subvención nominativa a Caritas y fraccionamiento de la misma.

6.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE PLAN DE IGUALDAD

Visto el expediente relativo a la propuesta de aprobación de Plan de Igualdad.

Visto el dictamen de la Comisión Ciudadanos de 20 de febrero de 2020, proponiendo al Ayuntamiento Pleno por mayoría aprobar el I. Plan de Igualdad de mujeres y hombres de Hondarribia.

La Sra Larrarte toma la palabra y procede a dar lectura al siguiente texto:

“El primer Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres tiene como objetivo buscar la mejora en beneficio de toda la sociedad.

Es una tarea que afecta tanto a mujeres como a hombres, por lo que no se limita a problemas relacionados con las mujeres.



Hondarribiko errealitate zehatzetarako pentsatutako plana da eta bere aukeretara egokituta dago.

Esan beharra daukat enpresak aurkeztu digun lana bikaina izan dela.

Plana egiteko egindako diagnostikoa hartu da kontuan.

2019an, Hondarribiko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa egiten aktiboki lan egin zen.

Diagnostikoak udalerraren erradiografia orokorra eskaintzen du, begirada bikotzarekin.

-Barnekoa – udal-zerbitzuak eta programak ebaluatuz.

-Kanpokoak- hainbat arlotan tokiko berdintasun-testuingurua ezagutzeko .

-Diagnostikoa egiteko egindako lan prozesua horrela banatu da:

1.-Lehenik prozesua martxan jarri genuen:

**Horretarako prozesua Udalari aurkezteko saio bat egin zen*

**Alde eragilearekin ere lehen saioa izan zuten*

**Prentsaurreko bat egin zen eta udal aldizkarian eta sare sozialetan eman zen horren berri.*

2.-Bigarren informazio bilketa:

**Honetarako elkarrizketak egin ziren*

**Eztabaida-taldeko teknikariekin.*

**Herritarrentzako gunere irekia egin zen*

**Bigarren mailako iturrien eta bibliografian ateratako informazioaren analisia.*

Se trata de un plan pensado para realidades concretas de Hondarribia y adaptado a sus posibilidades.

Tengo que decir que el trabajo que nos ha presentado la empresa ha sido excelente.

Se ha tenido en cuenta el diagnóstico realizado para la elaboración del Plan.

En 2019 se trabajó activamente en la elaboración del diagnóstico sobre la igualdad de mujeres y hombres en Hondarribia.

El diagnóstico ofrece una radiografía general del municipio con doble mirada.

-Interna – evaluando los servicios y programas municipales.

-Externa - para conocer el contexto de igualdad local en diferentes ámbitos.

-El proceso de trabajo llevado a cabo para la realización del diagnóstico se ha dividido de la siguiente manera:

1.- Primero se inició el proceso:

**Para ello se realizó una sesión de presentación del proceso al Ayuntamiento.*

**Primera sesión también con la parte operativa.*

**Se realizó una rueda de prensa que se dio a conocer en la revista municipal y en las redes sociales.*

2.- En segundo lugar recogida de información:

**Para ello se realizaron entrevistas.*

**Con el personal técnico del grupo de discusión.*

**Se realizó un espacio abierto al público.*

**Análisis de fuentes secundarias e información bibliográfica.*



Lana aurrera eraman zen:

**Prozesua eta dokumentua kontrastatu zituen talde eragilearen laguntzarekin.*

**Sailetan eta zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzeari buruz hausnartzeko saio batera joan ziren teknikariek.*

**Hondarribian berdintasunaren inguruko ikuspegi estrategikoa eman zuten ordezkari politikoekin*

**Eta eremu ireki parte-hartzaile batera joan ziren herritarrekin, non arlo horretarako proposamenak egin zitezkeen.*

Nabarmentzekoa eta eskertzekoa da eragile guztien parte-hartzea eta inplikazioa, berdintasun plana egiteko abiapuntua izan zen diagnostikoa egiteko prozesuan.

Hondarribiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan berriarekin, udalerrian garatu beharreko ekintza-ildoak ezartzen dira, genero –ikuspegia ikuspegi zabal batetik txertatuz

Sistematikoki kontuan hartzeaz gain, emakumeen eta gizonen baldintzak eta beharrak ere kontuan hartu behar dira, tokiko politikek desberdintasunak desagerraraztera bideratutako ekintza eta helburu zehatzetan oinarritzea ahalbidetuz.

Planak udal politikarekin koherenteak diren lehentasunezko ekintzak jasotzen ditu, bakoitzaren beharrekin bere eskumenekin eta problematikekin.

Plan hau gidatzen duen esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako zazpigarren plana da.

Lau ataletan oinarritzen da:

- Gobernu ona euskal herri - administrazioetako antolakuntzan eta funtzionamenduan berdintasuna txertatzeko.*
- Emakumeen ahalduntzea, emakumeak eta neskek maila pertsonalean eta kolektiboan, zein*

Trabajo realizado:

**Se contrastaron el proceso y el documento con la colaboración del grupo operativo.*

**Asistieron con los técnicos y técnicas a una sesión de reflexión sobre la incorporación de la perspectiva de género en los departamentos y servicios.*

**Aportaron una visión estratégica de igualdad en Hondarribia con representantes políticos.*

**Y acudieron a un espacio abierto participativo con la ciudadanía en el que se podían hacer propuestas al respecto.*

Es de destacar y agradecer la participación e implicación de todos los agentes implicados en el proceso de elaboración del diagnóstico que sirvió de punto de partida para la elaboración del Plan de Igualdad.

Con el nuevo Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Hondarribia se establecen las líneas de acción a desarrollar en el municipio, incorporando la perspectiva de género desde una perspectiva amplia.

Además de tenerla en cuenta sistemáticamente, es necesario tener en consideración las condiciones y necesidades de mujeres y hombres, permitiendo que las políticas locales se basen en acciones y objetivos concretos orientados a eliminar las desigualdades.

El Plan recoge acciones prioritarias coherentes con la política municipal, con sus respectivas necesidades, con sus competencias y problemáticas.

El marco que guía este Plan es el séptimo Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se basa en cuatro apartados:

- Buen gobierno para incorporar la igualdad en la organización y funcionamiento de las administraciones públicas vascas.*
- Empoderamiento de las mujeres para favorecer tanto su empoderamiento personal y*



sozialean eta politikoan ahaldun daitezen laguntzeko.

- *Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko eta gizarte-eredu jasangarriagoa bultzatzeko.*
- *Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak, prebentzioa landuz eta bizirik dirauten biktimei arreta integrala emanaz guztiz indarberritu arte.*

Bloke horietako bakoitzak programa eta helburu estrategikoetan egituratuta jarduteko gidalerroak markatzen ditu.

Planak ehun ekintza baino gehiago ditu, 25 bat urtean eta lehenetsuen arabera antolatuta daude. Planak lau urteko epea izango du 2020tik 2023ra. Planak planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema jasotzen du, ebaluzio-adierazleekin.

1.- Lehenengo urtean, teknikarien eta politikarien prestakuntzan oinarritzen dira ekintzak; izan ere, lehenengo urtea da oinarriak ezartzen direna, eta irmoki eta gauzatu daitezkeen ekintzekin egin behar da.

2.-2021erako ekintza asko daude, baten bat aipatzeko:

**Estatistiketan eta ikerketetan genero ikuspegia txertatzea.*

**Emakume guztientzako ahalduntze pertsonal eta kolektiboko tailerrak antolatzea.*

**Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.*

3.-Hirugarren urterako sektorekako eta zeharkako planetan genero- ikuspegia txertatzea, tokiko erakundeekin lankidetzak – mekanismoak sortzea erakundeetan berdintasunaren ezarpena lantzeko.

colectivo, como social y político.

- *Transformar las economías y la organización social para garantizar derechos y promover un modelo de sociedad más sostenible.*
- *Vidas sin violencia contra las mujeres, trabajando la prevención y prestando una atención integral a las víctimas que sobreviven hasta su recuperación total.*

Cada uno de estos bloques marca las directrices de actuación estructuradas en programas y objetivos estratégicos.

El Plan cuenta con más de un centenar de acciones, unas 25 al año, y están organizadas según las prioridades. El Plan tendrá un plazo de cuatro años, del 2020 al 2023. El Plan recoge un sistema de seguimiento y evaluación del mismo, con indicadores de evaluación.

1.- Durante el primer año las acciones se centran en la formación de personal técnico y político, ya que es el primer año que se establecen las bases y se debe realizar de forma decidida y con las acciones que se puedan llevar a cabo.

2.-Para el año 2021 hay muchas acciones previstas, por citar algunas:

**Integración de la perspectiva de género en las estadísticas e investigaciones.*

**Organizar talleres de empoderamiento personal y colectivo para todas las mujeres.*

**Potenciar la coordinación y cooperación para la igualdad.*

3.- Para el tercer año incorporar la perspectiva de género en los planes sectoriales y transversales, crear mecanismos de colaboración con las entidades locales para trabajar la implantación de la igualdad en las organizaciones.



4.-Eta 2023rako:

**Ordaindu gabeko zaintza-lanak ikustaratzeta eta horiei balioa ematea.*

**Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea.*

Planaren zirriborroa 2019ko uztailaren 18an aurkeztu zitzaizen bai talde eragileari, bai talde politiko guztiei.

Hurrengo egunean diagnostikoa eta planaren zirriborroa bidali zen eta ekarpenak egiteko epea finkatu genuen.

Hasieran uda zela kontuan izanda eta iraileko jaiak ere kontuan hartuta, irailaren 30 arte erabaki zen ekarpenak aurkezteko azken eguna.

Alderdi eta talde batek eskatu ziguten ekarpenak jasotzeko epea zabaltzea eta hala egin genuen 2019ko urriaren 17arte.

EH-Bildu 2019-10-15

Abotsanitz

Emeki

Pensiodunen mugimendua 2019-10-17

Jarraitu baino lehen eskerrak eman nahi dizkiegu Berdintasun Diagnostikoari eta Planari egindako ekarpenengatik, ugari izan dira.

Proposatutako ekarpen asko barneratu dira eta, beste batzuk, aurrerago lantzeko interesgarri ikusi dira nahiz eta oraingo planean ez diren sartu. Izan beharko lukeena eta egungo testuinguruan bideragarri dena orekatu nahi izan da, horregatik batzuetan zenbait ideia kanpoan geratu dira.

Talde bakoitzak ekarpenen erantzuna jaso zuen, planean zer gehitzen zen, zer ez zen sartzen eta zergatia.

Horren ondoren, Emakundera bidali zen eta beraien txostena jaso genuen.

Planteatutako ekintzei eta helburuei dagokienez, oro har bat zetozela adierazi zuten VII planeko

4.- Y para el 2023:

**Visibilizar y poner en valor el trabajo de cuidados no remunerado.*

**Incrementar la detección precoz de la violencia contra las mujeres.*

El borrador del Plan fue presentado el 18 de julio de 2019 tanto al grupo operativo como a todos los grupos políticos.

Al día siguiente se enviaron el diagnóstico y el borrador del plan y se fijó el plazo para realizar aportaciones.

Teniendo en cuenta que al principio era verano, y que las fiestas son en septiembre, se fijó hasta el 30 de septiembre la fecha límite para presentar aportaciones.

Un partido y un grupo nos pidieron ampliar el plazo para recibir las aportaciones y así lo hicimos hasta el 17 de octubre de 2019.

EH-Bildu 15-10-2019

Abotsanitz

Emeki

Movimiento de pensionistas 17-10-2019

Antes de continuar queremos agradecer las aportaciones realizadas al Diagnóstico y al Plan de Igualdad, que han sido numerosas.

Se han incluido muchas de las aportaciones propuestas y otras se han considerado de interés para trabajarlas más adelante, aunque no se han incluido en el plan actual. Se ha tratado de equilibrar lo que debería ser y lo que es viable en el contexto actual, por lo que a veces algunas ideas han quedado fuera.

Cada grupo recibió la respuesta a sus aportaciones, qué es lo que se incluía en el plan, qué es lo que no se incluía y el por qué.

Posteriormente se envió a Emakunde y recibimos su informe.

En lo que respecta a las acciones y objetivos planteados, en general, manifestaron su



jarraibideekin eta beraien aholkuak eman zizkiguten.

Joan den otsailaren 20an batzordera eraman genuen planaren proposamena eta batzordean eskatu zen lan saio bat egitea ekarpenak egin zituzten talde guztiekin aztertzeko eta hala egin genuen joan den otsailaren 27an, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Igo Plana egin duen empresarekin batera.

Plana aurrera eramateko gure proposamenaren egitura azaldu genuen:

- *Arduradun politiko bat egongo da
- *Arduradun tekniko bat ere bai
- *Talde interdepartamental bat sortuko da plana onartzen denean
- *Talde honek planaren garapena sustatu, programatu eta ebaluatuko du aldian aldiko bileren bidez; kanpoko Idazkaritza tekniko baten kontratazioarekin uztartuko da. Idazkaritza honek babesa emango du garatu beharreko bai ekintzetan, bai planaren jarraipenean eta ebaluazioan ere.

Adierazi genuen bezala, une honetan kontratazio-egoera dagoen moduan, martxan jartzeko hoberena ikusten dugu.

Bilera horretan argi geratu zen plana edukitzea sekulako tresna dela, beharrezkoa dugula eta martxan jarri behar dugula lehenbailehen".

Ondoren, Urtizberea andreak hartu du txanda eta honako testua irakurtzeari ekin dio:

"Hondarribiko Gizon eta Emakumeen arteko Igo Berdintasun Plana berebiziko garrantzia duen dokumentua da, AZKENEAN iritsi delako 2005eko legearekin bat egiteko momentua. Abotsanitzek oso positiboki jaso genuen prozesu hau hasi behar zela, Hondarribiak, berandu, baina azkenean merezitako tresna bat edukiko zuelako eta hondarribiarrak babesteko tresna sendo bat edukitzeko aukera irekitzen zelako. Zirriborroa jaso genuenean lanketa sakon bati ekin genion. Indar eta mimo guztiarekin egin genuen lan. Dokumentua aztertuz eta herriko hainbat eragile eta pertsonarekin partekatuz.

conformidad con las directrices del VII Plan y nos dieron asesoramiento.

El pasado 20 de febrero llevamos a la comisión la propuesta del plan y en la comisión se solicitó la realización de una sesión de trabajo para analizar con todos los grupos que hicieron aportaciones y así lo hicimos el pasado 27 de febrero, junto con la empresa que ha elaborado el I Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Expusimos la estructura de nuestra propuesta para llevar a cabo el plan:

- *Habrá un responsable político.
- *También un responsable técnico.
- * Se creará un grupo interdepartamental cuando se apruebe el plan.
- * Este grupo promoverá, programará y evaluará el desarrollo del plan a través de reuniones periódicas, que se combinará con la contratación de una Secretaría Técnica externa. Esta Secretaría apoyará tanto las acciones a desarrollar como el seguimiento y evaluación del Plan.

Como señalamos, tal y como está en este momento la situación de contratación, creemos que es la mejor manera de ponerlo en marcha.

En esa reunión quedó claro que tener el plan es una herramienta magnífica, que lo necesitamos y que tenemos que ponerlo en marcha cuanto antes".

A continuación toma la palabra la Sra. Urtizberea, que procede a leer el siguiente texto:

"El I Plan de Igualdad entre Hombres y Mujeres de Hondarribia es un documento de vital importancia, porque POR FIN ha llegado el momento de sumarse a la ley de 2005. Abotsanitz recibió muy positivamente el inicio de este proceso, porque Hondarribia, tarde, pero al final iba a contar con una herramienta merecida y se abría la posibilidad de contar con una herramienta sólida para proteger a los y las hondarribiarras. Cuando recibimos el borrador comenzamos a trabajar en profundidad. Trabajamos con toda la fuerza y todo el mimo, analizando el documento y compartiéndolo con diferentes agentes y personas del municipio.



Planak egitura txukuna du, halaberrez Emakunderen VII.planean oinarrituta dagoelako, eta egitura hori jarraikiz eraiki delako. Forman, beraz, egokia. Baina, planteatutako ekintzei modu sakonago batean erreparatu genienean, ohartu ginen planak ez zituela hartzen genero ikuspegia duten berdintasun politikak bultzatzeko benetako konpromezuak:

- “Berdinsarean parte izateko aukera aztertu”. Ez da aztertu beharreko zerbait, egin behar den zerbait baizik.

- “Udal berdintasunerako mahai paritario bat sortzeko testuingurua aztertzea”. Gauza bera, ez da aztertu behar, gauzatu baizik.

- “Gizarte zerbitzuen sailak barne hartuko zuela planaren egikaritzea”. Ez da egokia, Gizarte Zerbitzuen arloa gaindituta dagoelako, eta pertsonala ez dagoelako berdintasunean trebatuta. Sail propioa behar du.

- “Ez da berdintasun teknikaria bideragarria ikusten”. Teknikaririk gabe, ez dago plana aurrera ateratzerik.

- “Aurrekontu bat egongo da berdintasun politiketara bideratuta, baina ez da %1ra iristen”. Aurrekonturik gabe, gauza bera, ezin berdintasun politikarik aplikatu. Emakundek %1koa izatea indikadore estrategiko bezala dauka definituta.

Hauetz gain, beste hainbat esparrutan ekarpenak egin genituen. 34 ekarpen jaso zituzten eta haietatik asko txertatu dira planean, Berdinsarean sartzeko eta berdintasun mahai bat eratzeko eskariak tartean. Baina funtsezkoak diren beste hiru eskaerak ez ziren barneratu.

Hortik aurrera prozesua ez da izan gustatuko litzaigukeen bezain arina. Etenaldiak eta bat-bateko presak ez dira bidaide onak. Hamarkada bat baino gehiagoko atzerapenarekin datorren plan honek denbora gehiago eskatzen zuen, eta halaxe eskatu genion udal gobernari: denbora gehiago emateko eta ekarpenetan parte hartu zuten eragileekin mahai inguru bat egiteko.

El Plan tiene una estructura ordenada, ya que necesariamente está basado en el VII Plan de Emakunde, y se ha construido siguiendo esa estructura. Por lo tanto, es adecuada en la forma. Pero, cuando nos fijamos de una manera más profunda en las acciones planteadas, nos dimos cuenta de que el plan no incluía compromisos reales para impulsar políticas de igualdad con perspectiva de género:

- “Estudiar la posibilidad de formar parte de Berdinsarea”. No es algo que haya que analizar, sino algo que hay que hacer.

- Lo mismo que “Analizar el contexto para crear una mesa paritaria de igualdad municipal”, no hay que analizarlo, sino llevarlo a cabo.

- “Que el departamento de servicios sociales incluiría la ejecución del plan”. No es adecuado porque el área de Servicios Sociales está desbordada y el personal no está capacitado en igualdad. Necesita un departamento propio.

- “No se considera viable un/una técnico/a de igualdad”. Sin persona técnica, no se puede llevar adelante el plan.

- “Habrá un presupuesto destinado a políticas de igualdad, pero no llega al 1%”. Sin presupuesto pasa lo mismo, no se pueden aplicar políticas de igualdad. Emakunde tiene definido el 1% como indicador estratégico.

Además de éstas, hicimos aportaciones en otros ámbitos. Recibieron 34 aportaciones, muchas de las cuales se han incluido en el plan, incluyendo peticiones para integrarse en Berdinsarea y constituir una mesa de igualdad. Pero las otras tres peticiones fundamentales no se incluyeron.

A partir de ahí el proceso no ha sido tan fluido como nos hubiera gustado. Las pausas y las prisas repentinas no son buenos compañeros de viaje. Este plan que viene con más de una década de retraso pedía más tiempo, y así se lo pedimos al gobierno municipal: que diera más tiempo y se hiciera una mesa redonda con los agentes que participaron en las aportaciones.



Eskertzen dugu udal gobernuak lanketarako bi aste gehiago eman izana eta ekarpenak egin zituzten alderdi eta eragileekin, eta plana idatzi duen fundazioarekin bilera deitu izana. Bilera hartan, plan honek behar dituen zutabe nagusien gabezia identifikatuta geratu zen nabarmen, eta gure eskariak berresteko balio izan zigun:

- *Berdintasun teknikaria*
- *Sail propioa*
- *Aurrekontu propioa.*

Aho bateko eskaera zen. Emakundek berak ere plana egikaritzeko beharrezkoak diren elementuak direla aipatzen du Hondarribiko Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Planari eginiko txostenean.

Planean detektatu genuen gabezia batetik abiatuta, puntu lilen kanpaina abiatu dugu azken egunotan. Diagnostikoak dio zailtasunak daudela ertzaintzak genero indarkeria kasuen inguruzko datuak Gizarte Zerbitzutako sailera helarazteko. Ertzaintzarekin elkarriketak izan ondoren, behin eta berriro esan digute beraiek datuak ematera behartuta daudela, eskatzen badira. Eustatek publikatzen dituen datuak publikoak dira. Datu hauek agerian jartzea behar beharrezkoa dela uste dugu. Hondarribia ez baita irla bat munduan, hemen ere kasuak ditugu eta arazoari aurre egin behar zaio, eta zuzendu. ETA HORRETARAKO BALIABIDEAK BEHAR DIRA.

Gaur egun planak proposatzen dituen epe-mugak egokiak dira egikaritzeko jarri zaizkion egitura eta baliabideentzako. Baina gizarteak dituen beharrak ez dira ondo asetzen. Ekimen asko berandu planteatuta daude, batez ere komunikazioarekin eta prebentzioarekin zerikusia dutenak.

Emakumeentzako garai ilunak irekitzen ari dira, eskuin muturreko mugimendua ahalduntzen ari da, eta emakumeen ongizatea eta askatasuna arriskuan dago, baita ohiko genero sailkapenetik kanpo sentitzen direnenena ere. Eskuin muturreko mugimendu hauek uste okerrak zabaltzen dituzte, gizartean txertatzen doazenak. Adibidez: "Feminismoaren bultzatzaile sutuenak lesbiana erradikalak direla". Aprobetxatuko dut, Angela

Agradecemos que el gobierno municipal haya dado dos semanas más para trabajarlo y que se haya convocado una reunión con los partidos y agentes que hicieron las aportaciones y con la fundación redactora del plan. En aquella reunión, la ausencia de los principales pilares que necesita este plan quedó claramente identificado y nos sirvió para ratificar nuestras demandas:

- *Técnico/técnica de igualdad*
- *Departamento propio.*
- *Presupuesto propio.*

Era una petición unánime. La propia Emakunde los menciona como elementos necesarios para la ejecución del I Plan de Igualdad entre Mujeres y Hombres de Hondarribia.

A partir de una carencia que detectamos en el plan, hemos lanzado en los últimos días una campaña de puntos lilas. El diagnóstico indica que existen dificultades para que la Ertzaintza facilite al departamento de Servicios Sociales los datos relativos a los casos de violencia de género. Tras mantener conversaciones con la Ertzaintza, nos insisten en que ellos están obligados a facilitar los datos si se solicitan. Los datos que publica Eustat son públicos. Creemos que es necesario poner de manifiesto estos datos porque Hondarribia no es una isla en el mundo, aquí también tenemos casos y hay que afrontar el problema y corregirlo. Y PARA ESO HACEN FALTA RECURSOS.

Actualmente los plazos que propone el plan son adecuados a la estructura y recursos que se le han asignado para su ejecución, pero las necesidades que tiene la sociedad no se satisfacen adecuadamente. Muchas iniciativas están tardíamente planteadas, sobre todo las relacionadas con la comunicación y la prevención.

Están llegando tiempos complicados para las mujeres, el movimiento de extrema derecha se está empoderando y el bienestar y la libertad de las mujeres están en peligro, incluso de las que se sienten fuera de la clasificación de género habitual. Estos movimientos de extrema derecha difunden creencias erróneas que se van incorporando a la sociedad. Por ejemplo: "Que los impulsores más acérrimos del feminismo son las lesbianas



Davisen hitz famatu batzuek ekartzeko "el feminismo es la idea radical de que las mujeres somos personas". KOMUNIKAZIOA, KONTZIENTZIAZIOA, HEZIKETA DIRA PREBENTZIORAKO BIDEA. Hori lehentasun izan behar da ezinbestean.

Teknikari propioa edukiko bagenu, gaur aurkezten den planaren denbora lerroa hobetzea ekarriko luke, eta modu paralelo batean hainbat ekimen martxan jartzea. TEKNIKARI PROPIOA EDUKITZEAK, PROZESUAREN EGIKARITZEA BERMATZEN DU, prozesuaren kontrola bermatzen du, prozesuak bilatzen dituen helburuen asebetetzea aztertzen du, aldaketak egin behar diren ikusten du... Beste mila onura aipa genitzake, baina ez dut luzatu nahi.

Berariazko sail bat edo departamentu propioa edukitzeak, lan-esparru hau herriko gainontzeko kudeaketa esparruen maila berean jartzen du, dagokion lekuan, herria kudeatzeko orduan garrantzitsuak diren beste sailen ondoan. Gizarte Zerbitzuen sailaren barruan geratzen bada, aldiz, lanketa diluitzeko arriskua dago, denok dakigu Gizarte Zerbitzuetako saila lanez gainezka dagoela, eta genero berdintasunean formazioa behar dutela. Hau izanik abiapuntua, planak etorkizun iluna izango du.

Hondarribiaren biztanle kopuru antzerakoa duten herrietan ez da kanpo-aholkularitza batekin lan egiten, teknikaria izaten dute. Bai, batzuetan azpikontratatua, baina teknikaria. Pertsonalarekin dauden arazoak azaleratzen dira beste behin. Egitura egonkor honen ordeztu aholkularitza-tekniko bat planteatzen zaigu. Oraindik ez dakigu nork, nola, noiz....

Aukera ikaragarri polita genuen Udalbatza honetan aho batez Hondarribiko Gizon eta Emakumeen arteko I. Berdintasun Plana onartzeko. Baina azkenean ez dira guretzako berebiziko garrantzia duten eskari hauek jaso. Purplewashing baten aurrean egoteko arriskua ikusten dugu eta horregatik ezin diogu aldeko botoa eman.

Baina Martxoaren 8rako adostu genuen testuan berdintasun plana aurrera ateratzeko konpromezua

radicales". Aprovecharé para recordar algunas de las famosas palabras de Angela Davis: "El feminismo es la idea radical de que las mujeres somos personas". LA COMUNICACIÓN, LA CONCIENCIACIÓN Y LA EDUCACIÓN SON EL CAMINO PARA LA PREVENCIÓN. Eso tiene que ser necesariamente una prioridad.

Si dispusiéramos de una técnica o un técnico propio, supondría mejorar la línea temporal del plan que hoy se presenta, y poner en marcha de forma paralela varias iniciativas. CONTAR CON UNA O UN TÉCNICO PROPIO GARANTIZA LA EJECUCIÓN DEL PROCESO, garantiza el control del proceso, analiza la satisfacción de los objetivos perseguidos por el proceso, ve si hay que hacer cambios... Podríamos citar otros mil beneficios, pero no me quiero extender más.

La existencia de un departamento específico o departamento propio sitúa este ámbito de trabajo al mismo nivel que el resto de los ámbitos de gestión de la localidad, en el lugar que le corresponde, junto a otros departamentos importantes a la hora de gestionar la ciudad. Si queda dentro del departamento de Servicios Sociales, en cambio, se corre el riesgo de diluir el trabajo, todos sabemos que el departamento de Servicios Sociales está saturado de trabajo y que necesitan formación en igualdad de género. Siendo este el punto de partida, el plan tendrá un futuro confuso.

En localidades con un número de habitantes similar al de Hondarribia no se trabaja con una asesoría externa, sino que cuentan con un técnico o una técnica. Sí, a veces subcontratada, pero persona técnica. Una vez más afloran los problemas que existen con el personal. En lugar de esta estructura estable se plantea una asesoría técnica. Todavía no sabemos quién, cómo, cuándo...

Era una gran oportunidad para aprobar por unanimidad en este Pleno el I Plan de Igualdad entre Hombres y Mujeres de Hondarribia, pero al final no se han recogido estas demandas de vital importancia para nosotros. Vemos el riesgo de estar delante en un Purplewashing y por eso no podemos votar a favor.

No obstante, en el texto que acordamos para el 8 de marzo nos comprometimos a sacar adelante el plan



hartu genuen. Konpromezu horri eutsiz ez dugu planaren onarpena oztopatuko. Beraz ABOTSANITZ ABSTENITU EGINGO DA”.

Jarraian, Odriozola andreak hartu du hitza eta adierazi du Alderdi Sozialistaren ustez adostasuna eta ekimena egon direla, Berdintasun Plan hau Gizarte Zerbitzuen programatik egin delako. Bere ustez, lan ona egin da. Plana ezartzeko modua positibotzat jo du, eta esan du bat egiten dutela Emakunderen gomendioekin eta erakunde horrek emandako txostenarekin; izan ere, adierazi du plana gauzatzeko garrantzitsua dela berdintasun sail bat sortzea eta teknikari bat kontratatzea, besteak beste. Adierazi du halaber, une honetan planteatzen dena Plana Gizarte Zerbitzuek gainbegiratzea dela, baina sail hori berez nahiko gainezka dagoela. Gaineratu du beharrezkotzat jotzen dutela berdintasun teknikari bat kontratatzea, teknikari hori Udalekoa izatea eta sail guztiekin lan egitea, iruditzen baitzaie zeharkako diziplina dela. Horregatik eta teknikariaren irudi hori ez izateagatik, Odriozola andreak aurreratu du bere taldea abstenitu egingo dela.

Jarraian, Isasi jaunak hartu du txanda eta Abotsanitz eta PSE-EE-PSOE udal taldeen arrazoi bertsuengatik, EH Bilduk ere abstentziora joko duela esan du. Berdintasun Plana 2005eko Berdintasun Legearen haritik datorrela adierazi du. Udala XXI. mendean sartuko dela azaldu du eta ez dela gutxi. Berdintasun Plana lanabes estrategikoa dela esan du, plan honek udalerrria bere lekuan jarriko duela eta plana gauzatzeko Emakunderen irizpen txostena behar dela erantsi du. Halaxe, bertan aipatzen den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legearen 15.3 artikulua irakurri du:

“Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu

